



## AZALPENA

Sekuentzia didaktiko honetan ikasleek izaki bizidunen arteko harremanak landuko dituzte marrazketaren bidez ingurua behatzen duten bitartean.

## KRONOGRAMA

2-3 saio eta behaketarako tarte beharko dira sekuentzia didaktiko hau burutzeko.

	1. SAIOA	2. SAIOA	3. SAIOA	4. SAIOA
1. JARDUERA				
2. JARDUERA				
3. JARDUERA				
4. JARDUERA				
5. JARDUERA				
6. JARDUERA				





## 1. JARDUERA: Aurrezagutzak arakutzen

Jarduera hau ikasleek izaki-bizidunen arteko erlazioak gelan landu aurretik edo ondoren egin daiteke. Dena den, kontuan izan behar da bi kasuetan ikasleen ezagutzak ezberdinak izango direla, eta, ondorioz, horren arabera baloratu behar dela euren lana.

Edozein kasutan, beharrezkoa da gaiaren inguruan ikasleek duten ezagutza maila zein den jakitea. Horretarako, ikasleei [1.eranskineko](#) fitxa betetzeko eskatuko zaie. Ikasleek banaka erantzun beharko dituzte 1.eranskineko galderak eta ondoren denen artean zuzendu.

Ondoren, irakasleak arazo-galdera aurkeztuko die ikasleei.

- **Izaki bizidunen arteko zenbat harreman mota ikus genitzake gure herrian?**

## 2. JARDUERA: Beroketak

Kanpora atera eta marrazten hasi aurretik, eskumuturra berotu eta ikasleek beldurra pixkanaka galdu dezaten hainbat beroketa jarduera egin daitezke ikasgelan.

Landu “[Objektuak beldur gabe marraztuz](#)” eta “[Koloreak eta ehundurak ilustratuz](#)” jardueretan proposatutako ariketak gelan. Horretarako, irudi ezberdinak erabil daitezke. Lehenik Interneten bilatutako gauzeekin hasi daitezke eta ondoren ikasleek inguruan dituzten objektu errealekin jarraitu. Modu honetan irudiez gain, errealitatea paperean adierazteko ahalegina egingo dute ikasleek, bai eta kolorea eta ehundurak landu ere.



### 3. JARDUERA: Atera gaitezen kanpora!

Beroketa-ariketak egin ondoren, kanpora ateratzeko unea da, lorategira, herriko parkera edo herri inguruko mendiren batera, esaterako.

Bertan, ikasleak, ordubetez, inguruan dituzten izaki bizidunak behatu eta marrazten saiatuko dira, orri bakoitzean izaki bizidun bana marraztuz. Ikasle bakoitzak erabakiko du zein izango den aztertuko duen ingurua. Posible da ikasle batek zuhaitz bakar bat eta bertan topatzen dituen izaki bizidunak behatzea besteak inguruko metro karratu ugari behatzen dituzten bitartean. Ikasle bakoitzak bere behaketa erritmoari jarraituko dio, jakin-mina sorrarazten dioten gauzetan erreparatuz.

### 4. JARDUERA: Itzul gaitezen gelara!

Kanpo jardueraren hurrengo saioan ikasleak gelan bilduko dira. Lehen urratsa marrazturiko izaki bizidunak mahai gainean jartzea izango da. Ondoren, ikasleek behatutako izaki bizidunen zerrenda sortuko du irakasleak arbelean.

Hori egin ondoren, ikasle bakoitzak izaki bizidunen arteko hiru harreman agerian uzten dituen poster bat sortu beharko du. Posterra sortzeko, norberak eginiko irudietako izaki bizidunak baliatu ditzakete ikasleek edo arbeleko zerrendako izaki bizidunak hautatu.

Behin izaki bizidunak hautatuta posterra burutzeko unea da.

1. Ikasleek izaki bizidun horien harremana gertatu den lekua marraztu beharko dute, kasu honetan behaketa burutu duten lekua.
2. Ondoren, paisaia horretan euren protagonistak kokatu beharko dituzte.
3. Hori egin ostean, izaki bizidun horien arteko harremana adierazi beharko dute.

Bozetoak berrikusteko unean ikaskideen laguntza baliatuko da. Binaka jarrita, ikaskideek euren lana trukatu dute eta ikasleek ikaskideen lana baloratu eta berau hobetzeko 4-7 proposamen egin beharko dituzte "[Behaketa hobetzeko aholkuak](#)" jardueran aipatzen den moduan. Hori egin ostean, ikasleek bozetoak berregiteko aukera izango dute.

#### OHARRAK:

Jarduera hau burutzeko "[Behaketa hobetzeko aholkuak](#)" jarduerako [eranskinak](#) erabil daitezke.



## 5. JARDUERA: Posterra sortzeko unea da!

Bozetoak egin ostean, behin betiko posterra sortzeko unea da.

## 6. JARDUERA: Hausnartu dezagun berriz

Ikasle bakoitzak inguruko izaki-bizidunen arteko harreman ezberdinak marraztu dituztenez gero, horiek ezagutzeko unea da. Horretarako, ikasleen marrazkiak arbelean jarri eta gainerako ikasleek bertan ageri den harremana zein den adierazi beharko dute. Ordura arte izaki bizidunen arteko harremanak landu ez badituzte azaleko deskribapen batek balioko du: honek hau jaten du, izaki bizidun hau beste izaki bizidun honetan bizi da... Horren ondoren, jarduera hau harreman motak lantzeko erabili daiteke: mutualismoa, komentsalismoa, parasitismoa eta abar.

Aldiz, gai hauek lehendik landu badira, ikasleei maila hori eskatuko zaie.

Azken jarduera hau amaitutakoan hasierako galdera errepikatuko diegu ikasleei:

- **Izaki bizidunen arteko zenbat harreman mota ikus genitzake gure herrian?**